

# **piipilean**

*Soraluzeko Hamabostekaria* 53. alea 2002ko uztailaren 12a



**Ezoziko Ama Abesbatza**

**X. urteurrena**



**Tornileria-estanzazioa  
eta  
extruzioa hotzean**



**GOL, S.A. Industriak**

Sagar Erreka, 19 45 PK

20590 SORALUZE

Tfnoa. 943 75 21 00 / <http://www.gol.es>

**IRATXO**  
GOXOTEGIA

**EGUNKARIA  
ETXERA ERAMATEN DIZUGU  
GEHIAGO ORDAINDU GABE**

ETXABURUETA, 4  
20590 SORALUZE  
Tfnoa: 943 75 13 20

**Instalaciones Kalebarren S.L.**



20590 SORALUZE TEL. / FAXA: 943 75 23 07 ESKUKO TEL.: 608 67 40 70 / 607 40 37 92  
48017 DEUSTU TEL.: 944 75 99 60 POSTA ELEKTRONIKOA: KALEBARREN@INICIA.ES

**EROSLE**  
Kontsumo kooperatiba

Tel.: 943 75 13 45

**JABIER ALBERDI**



KALITATEKO EUSKO LABELA DUTEN  
PRODUKTUETAN.



Errebal kalea 24  
Tfnoa 943 75 19 32



## "Aizu! Mikel naiz"

EGUZKINE ALDAZABAL

**B**ai, Mikel naiz, ez dot uste hain konplikatu danik, nere gurasuak ez ninduen hain izen zailaz bataiatu. Baiña askotan, gaurko moduan, "...zure ondoko hori, irakiñaldi bat falta jakon hori...", entzun bihar izaten dot. Egixa esan, ez dot ondo ulertzen ze esatia nahi dabezen horrekin! Igual okasiño askotan, bat hasarretu bihar danian, nere jenixua ataratzen ez dakittelako izango da... edo... gaiñian daroiaten kamisetia urtiak pasata horittuta dagualako (amari "Aze" leña erosteko esan biharko dotsat, ez da mutilan itxuria eta.. a-ze buruhaustiak..).

Jo, lehen autobusera igo naizenian, ixa-ixa alboko andria jan dot estropuz eginda eta ezin izan dotsat barriari eutsi... baiña itxuria atzeko gizon bizardunari ez dotsa graziarik ein edo.. "ai gaixua, sufri du bihar dabena..", pena musu galanta zekan.. ez dakit zeñegaittik ibiliko zan baiña jun jataz barregurak derrepentian.

Segittuan heldu naiz lantokira. Ze jende majua dagan (zapatuan afaltzera goiaz "Atzegiko" lagun batzukin.. de poteo!!) Oso ondo eruatzen gara danok, jo, eta batez be Kattalin... ze pertsona ona dan.. begi berde haundi horrekin.. aspaldixan ezin dot burutik kendu... ondo-ondo idazten ikasten nabil berari eskutitz bat idazteko... Irakurtzen be oso ondo dakit, atzo etxian aman papel zahar bat topau neban:

-"..Oin hogeita bi urte jaixo zan nere maittasun egarrixa asetuko zeban iturrixa. Hasieran ur gazixa besterik ez zotan emoten, momentu garratzak izan ziran.. baiña gaur, ur freskuenetik edaten dotela esan neike. Igual ez dau iturri berrixak beste ur emoten, baiña emoten dabena ezin leike ostiengokuekin konparau... Askotan bizitzari asko eskatzen dotsau, larregi esango neuke, eskura urtegi oso bat izatia. Baiña ez gara konturatzen urtegi alperrik dala benetako egarrik euki ezian. Gutxi dira hori ulertzen dabena, gutxi, saiatzen diranak.. zegaittik konformau egarrixa asetziakin urez ittotzeko beste euki leikenian? Gutxi dakixe ordia, batek eztarrixa bustitzeko juxtu-juxtu dakanian basokada ur batek emoten dabena goxotasuna zelakua dan.. Askotan amak idatzitakua zaila egiten da ulertzen...bueno, igual ni izango naiz ulertzia kostatzen jakona, ikastolan be birritan irakurri bihar izaten nittuan gauzak, eta artian be.. baiña... ni pozik bizi naiz, oso, lana dakat, lagunak, maitte naben familia bat.. ba al dao gehixao eskatzerik?"

Ba.. beste iñork be ez deixola Mikeli gehixao eskatu... Emon?? Nahibeste.

Zeru azpizan larrosak, bedar berdiak, krabeliñak, asunak, margaritak...danok gara desberdiñak; bakoitzak bere koloria, lurriña, itxuria... izan deigun danok egitteko bat, leku bat.

## Telegrapak

**A**upa irakurle!. STOP. oporrrak badatozela ta gustora eh?. STOP. langiliak oporretara eta ikasle gaztiak lanera. STOP. San Andres jaixetan aurtan be estripitisa izango da. STOP. hori da biziua hori!. STOP. Jente bizioso eta lizun larregi dao auzo horretan!.STOP. bi titi ta bi koxkobillo ikusteko hola ibili biharra be!. STOP. Herriko jaixetan berriz Pablo Carbonell. STOP. prezio berdinian hobe zan Gran Wyoming ekarritta. STOP. edo Toreros Muertos. STOP. baina Carbonell... bakarrik baino hobe da entsaladan. ἴϥ. Batasuna be larri xamar. STOP. len diru asko ez, ta laster... STOP. aurtan gabonak baino len azaldu da Baltasar erregia. STOP. erregalo edarra!. STOP. Berrito jaixeri helduta, txupinazua bota bihar dabena be zelako hiru-kotia!. STOP. 3 generaziño, hiru pertsona umoretsu. STOP. 3 artista. STOP. Soraluzeko pelotarixen elitiak be txupinazuarekin batera jokatuko dau finala. STOP. Emon gogor eta bikoterik onenak irabazi deixela. STOP. Kontuak kontu, Olako Osiñeko zapuak baino hobeto gabiz eta gaitzerdi!. STOP. hurrengo alarrate. STOP. ondo izan eta gozatu jaixak!. STOP. GORA SANTA ANA!



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarte  
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.  
Telefona 943 75 13 04

Zuzendaria: Gurutze Ariznabarreta

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Enara Agirre, Eguzkine Aldazabal, Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Jon Oregi, Oier Oregi, Eduardo Pombar, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno.

Publizitatea: Jon Oregi eta Jon Basauri  
( 943751304 tel. )

Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena: 1.850 ale  
Inprimategia: Gertu Koop. Azala: Aitor Madrid  
Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid  
I.Z.K.-a: G20696563 Lege-gordailua: SS-537-2.000

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZeko  
UDALA



EUSto  
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU  
ALDUNDIA

## Erreportaia

Gaur egun, korua 39 lagunek osatzen dute,adin eta mota guztietako jendea. Denen artean adinekoena **Luis Elorza** da, 84 urte ditu, eta gazteena **Nerea Mendia**, 17 urte. Zuzendaria **Silvia Hernández** elgoibartarra da, adituena esantzen Euskal Herriko zuzendari gazterik onenetarikoa.



Ezoziko Ama Abesbatzaren 10 urteurrena

## Zorion agurrak



**Gorka Prieto**

2002-7-22

Hasi zara operazioz bikinixakin! Roberton partez muxu bat mingainakin. Urten armaixotik!



**Jon Oregi**

2002-8-16

Porron, pon, pon! Zorionak hiri eta beste bixeri! Zure lengusuak.



**Amaia Madrid**

2002-7-12 3 urte

Zorionak sorgintxo!! Jaeeaitxu txintxua izaten eech... Muxu haundi bat! Etxekuen partez.



**Paula Arana**

2002-7-23 2 urte

Zorionak eta jarraitu oin arte bezela. Muxu haundi bat etxekuen partez. Senidiak



**Joseba Mendizabal**

2002-7-7

Zorionak potxolo!! Jarraitu hain alai izaten.. Maite zaitugu Muxu haundi bat!! Luis Markel eta Ane



**Andoni Ariznabarreta**

2002-7-28 3 urte

Zorionak potxolo!!! Segi holaxe bixi bixi!!! Etxekuen partetik



**Ione Zubiaga**

2002-7-20

Mila zorion eta ondo pasau zure urtebetetze egunean Etxekuen partez



**Maite Ruiz de la Cuesta**

2002-8-26 8 urte

Zorionak eta jarraitu oin arte bezela. Muxu haundi bat etxekuen partez. Senidiak

### ***hildakuak***

Juan Mendia Zubizarreta  
Agustin Ibarguren Unanue

### ***jaiotakuak***

June Revuelta Irazabal

### ***Pil-Pileanen oharra***

Ondorengo zerrenda honetan, Pil-pilean elkarteko bazkide diren Soralezar batzuen izenak azaltzen dira. Kontua da bazkide hauen datu batzuk falta ditugula eta posible balute elkarteko telefono mugikorrrera deitzeko eskatuko genieke;

605706086 telefonora.

6- Arantxi Peñalba  
7- Juan Martin Altuna  
35- Asier Garzia  
60- Jose Agustin Agirrebeña  
61- Lorea Astigarraga  
68- Aitor Oregi  
75- Nerea Rascon  
76- Orbea Basauri  
90- Oskar Garitano  
202- Toni Gomez

## Agenda

### “GLOBALIZAZIOAREN AURKAKO MUGIMENDUA E.H.AN”

Uztailaren 17an  
asteazkena  
20:00etan

(*Hemen eta Munduaneko ordezkariak eta Indymedia Euskalherriaren aurkezpena.*)

### ODOL ATERAKETAK

Uztailaren 12xan, ostirala  
19:00etan  
Ikastola Zaharrean

### MARIA LUISA MAKINAY MISIOLARIAREN HITZALDIA

**ERREPUBLIKA DOMINIKARREKO EGOERAREN INGU-RUAN.**

Uztailaren 12an, ostirala  
20:30etan, abadetxe  
kapillan  
Ondoren afaria  
Txurrukan.

### “POEMAK KARTZELARA, PRESOK POEMEKIN KALERA”

Uztailaren 14an,  
21:00etan  
Poesia Errezitaldia  
Arrano Elkartean  
Asier Serrano poeta  
Eibartarra ere bertan  
izango da.

### DANBORRADA KO ENTSAIOAK

Uztailaren 16, 18 eta  
23an.  
19:30etan  
Goiko Eskoletan

### OHARRA

#### Liburutegiko ordutegi aldaketa

Udal liburutegiak uda garaian izango duen ordutegia jakinarazi du aste honetan. Uztailaren 1etik 24 ra izango da zabalik liburutegia, goizeko 9:30etatik 12:00etara eta ostegunetan arratsalde, 18:00etatik 21:00etara ere bai. Abuztuan itxita izango da eta irailean arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara izango da zabalik.

### ERRATA


Joan zen alean, kultura sailean, Leire Rodrigezek kartel lehiaketako 2. saria irabazi zuela argitaratu genuen.

Informazio hori okerra zen, kartel lehiaketako sariak eman gabe gelditu dira eta. Leire Rodrigez accedit bat eman zitzaion .Barkatu eragozpenengatik.

**Pil-pileaneko erredakzioa.**

## Javier Alonso Zelaieta

Hortz klinika



Mediku estomatologoa  
434 zenb. kol.

Atxuri, 1 - 1. eskuma  
Tfnoa 943 75 16 13



Barra kargadore automatikoak eta makina bereziak

## ETXE HUN, S.A.L.

Mendiola Industrialdea 14-5  
Tfnoa 943 75 18 91  
Faxa 943 75 24 58  
E - maila: [etxehun@teletel.net](mailto:etxehun@teletel.net)  
[etxehun@euskaltel.net](mailto:etxehun@euskaltel.net)

20590 SORALUZE  
Gipuzkoa

## Zer irizten dotsazu?

### Zer dago Soraluzen pil-pilean?



**Itsazne Elizburu**  
**15 urte Ikaslia**

Gure artian gehixen komentatzen dana jaixak dia. Lagunekin ondo pasatu eta disfrutatzeko gogua daukat.



**Andoni Osoro**  
**23 urte Irakaslia**

Polikiroldegiko lanak ia noiz hasten diran. Itxura danez inork ez dau hartzerik nahi ta beste urteren bat itxoin biharko da. Herrixa bera be...



**Ramon Argarate**  
**47 urte Irakaslia**

Aparkalekuen kontua nahiko larrixa da herrixan. Gainera gaizki aparkauta egon arren inori be trabarik eitten ez badotsa be multia ipintzen dabe.



**Juan Luis Ugalde**  
**51 urte Deliniantia**

Polikiroldegixana konpondu biharrekua pentzatzen jata. Herrittar gehixenok erabiltzen genduan ta oin ez daukau ezebe.



**Mari Cruz Garcia**  
**38 urte Etxekoandria**

Etxebizitzten faltia igartzen da herrixan. Barri asko ein dittue baina honek oso garestixak dira, gaztiendako gehixenbat.



**Isabel Rebolledo**  
**39 urte Erizaina**

Gauza asko falta dirala herrixan: zinia, polikiroldegixa, umiendako zeozer... Edozer gauzatarako kanpora juan bihar dozu, hemen ez dagualako ezebe.

Arianne Unamuno eta  
Enara Agirre



**SAN ANDRES**  
Iturgintza

*Iturgintza, Gasa, eta  
Berogailuak  
Sukaldeak eta bainuak*

Errebal kalea 2 behea  
Tfnoa 943 75 16 46



**MENDIZABAL**  
OKINDEGIA

Kalebarren,10  
Telefonoa 943 75 20 91  
Baltegieta, 6  
Telefonoa 943 75 13 99  
**SORALUZE**

## Batasuna ilegalizazioaren aurka



Espainiar Gobernuak alderdien legea aldatu eta Batasuna ilegalizatzeko duen asmoa salatuz, Batasuna alderdiak mobilizazioak hasi ditu azken asteotan. Batasunako ordezkariak adierazi digutenez, "oso kezkatuta gare, edozein momentutan ilegalizatzeko gaittuelako". Batasunak dei egin nahi die herriko indar politiko eta sozial guztiei, "Soraluzeko 2. Indar politikoaren ilegalizazioaren aurka egin dezan. Horretarako, Batasunak sinadura bilketa bat hasi du, herri osoan zehar.

## Autobusak ostiral gauetan



Joan zen urteko urrian Diputazioak zapatu gauerako martxan jarri zuen autobus zerbitzuaren arrakasta dela eta berau ostiral gauetara ere zabaltzea erabaki du, uztailaren 2. astetik irailaren 13<sup>a</sup> bitartean. Horretaz gainera, herrietako jaiegun batzuetan ere izango da gaueko zerbitzua:

Debako eta Azpeitiako jaietan: Eibartik zuzenean.

Bergara eta Arrasateko jaietan: Soraluzetik zuzenean.

Ostiraletako zerbitzuaren ordutegia zapatukoaren berbera da:

Eskoriatzaruntz: 00:10, 01:40, 03:10, 04:40 eta 06:10ean.

Eibarreruntz: 00:40, 02:10, 03:40, 05:10 eta 06:40an.

## Makinay misiolariaren hitzaldia

Soraluzeko Parrokiako Misioen Batzordeak antolatuta, Maria Luisa Makinay plaentxiar misiolariak hitzaldi bat eskeiniko ostiral honetan, arratsaldeko 20:30etan abadetxeko kapillan. Hitzaldi honetan, Errepublikar Dominikarrean egin dituen 13 urteetan zehar ezagutu duen errealitatearen inguruan berba egingo du. Hitzaldiaren ostean, elkartasun afari bat egingo da Txurruka jatetxean, 5euroko prezioan. Afari honetan izena emateko, Goiara Drogrerian eta Begoña Txurrukaren harategian.



## Erasoa Karakateko antenari



Ekainaren 30ean, 12:00etatik 2:00etara bitartean ezezagun batzuek erregaiz betetako botak bota zituzten Karakateko antenaren kable hodieta. Kableak sua hartu eta erre zirenean, telebista emisioa joan zen Soraluze, Elgoibar eta Eibarko etxe askotan. Sua piztu eta belaxe etorri ziren suhiltzaileek eta arazorik barik lortu zuten sua emendatzea. 20 Tekniko inguruk lan egin zuten eta gabeko 10:00ak alderako lortu zuten telebistako kate denon emisioa berreskuratzea.

## Debabarrenean %37ak euskaraz

SEI Elkarteak Euskal Herri osoan egin duen Euskararen kale neurketen bitartez kaleratu dituen datuek, Debabarreneko euskararen erabilera gora egin duela adierazten dute. Datuen arabera, 1.997an erabilera %30,4koa zen eta 2.002an %37,7koa. Soraluzeko euskalgintzako taldeen esanetan, "bailara osuan euskararen alde egiten ari diran ahalegin eta ekimenen fruitua da". Hala ere, Euskal Herriko beste eremu askotan izandako jeitsierak, "euskararen normalizazioaren alde egiten jarraitzeko biharra erakusten dau".

## ITUR iturgintza

Iturgintza, Gasa  
Berogailuak  
Sukaldeak eta Bañuak

Santa Ana, 20 Behea  
Telefonoa: 943 75 12 41  
Sakeleko telefonoa: 639 17 96 96



**BELARZAK**  
LORADENDA ETA BELARDENDA  
EROSKETAK ETXERA DARAMATZAGU

Santa Ana, 2 behea  
Tel.: 943 75 30 11  
Eskukoa telefonoa: 646 43 90 40  
20.590 SORALUZE



## “Eskualde Digitala” egitasmoa



### **Ikastetxeko lanak urrian**

Plaentxi Herri Ikastetxea eraberritzeko lanen proiektua, ofizialki irailean aterako da lehiaketara. Dagoeneko hasita daude “Amezuanekua” deritzon lantegia egokitzeko lanak eta uda aurretik amaituta izango omen dira. Ikastetxeko lanak berriz, urria inguruan hasiko omen dira. Ikastetxeko zuzendaritzatik jakinarazi digutenez, Ikastetxean lanak hasi arte ez omen dira inora mugituko.

### **Albesako zubiaren proiektua lehiaketara**

Albesako zubiari dagokionez, lanen 2. Faseko proiektua lehiaketa publikora etaratzeko erabakia ere hartu zuen Udalak. Proiektua abuztuaren 6an aterako da lehiaketara eta guztira 460.803,64 euroko kostua izango dute lan hauek. Eraikinaren eraisketa lanez gain, garai batean argindarra ateratzeko erabiltzen ziren turbina zaharrak aterako dira, noizbait Olako auzoan erakusgai moduan jartzeko gordeko direlarik.

Debabarreneko Garapen Ekonomikorako Debegesa elkarteak, Urolaldeko eskualdearekin batera, “Eskualde Digitala” izeneko proiektua aurkeztu zuten ekainaren 28an Eibarren.

Proiektu honek, eskualde guztian Euskaltelen bitartez fibra optikoa ezarri eta zerbitzu digitalekin zerikusia duten 9 ekimen martxan jartzeko asmoa jasotzen du. Hasiera baten, zerbitzu hauek, osasun, hezkuntza, formazio, industria eta administrazio alorrean jarriko lirateke martxan. Proiektuaren kostua 4 milioi eurokoa da eta bere helburua internetaren erabilera praktikoa ahalbideratzea da.

### **Ikerketa geologikoa Santa Anan**

Udalak, “Ikerlur” npresaren bitartez, Santa Ana kalean ikerketa geologikoa egiteko erabakia hartu du. Ikerketaren kostua 4.534,07 eurokoa da eta Santa Anako zartatuta dagoen hormaren egoera zelakoa den aztertzea da helburua.

### **Polikiroldegiko 2. fasea lehiaketara**

Uztailaren 1eko batzordean, aho batez onartu zen Polikiroldegia eraberritzearen 2. Fasea osatzeko proiektu berria, proiektu honek 703.374,88 euroko kostua izango du. Honekin batera, proiektua lehiaketa publikora aurkezteko erabakia ere hartu zen. Uztailaren 22an aterako da proiektua ofizialki lehiaketara eta irailetik urteari bitartean 5 hilabeteko epean amaitu beharko da.

## **Jaietarako Saziako bidea zabalduko da**

Udaletik jakinarazi digutenez, jaietarako Estazio eta Arraikua auzoen arteko bidea zabalik izango da. Gainera Saziako aparkamentuak ere egokituta izango dira. Abuztuaren bigarren urbanizazioa egingo da eta 2.003ko abendurako Sazia inguruaren urbanizazio proiektua prestatuta izatea aurriztatu da.

## **Ikastolako zorua egokitzeko eskaera**

“Soraluze BHI” Istitutuko Zuzendaritzak udal pilotalekuaren zorua eta aurreko aparkalekuak kirol ekintzetarako egokitzeko eskaria egin dio Udalari. Udalak bere aldeetik, pilotalekuaren zoru berria berdintzea ez duela egokitzat jotzen erantzun dio, frontisak zein alboko hormak ere “arazo berbera” dutelako. Eta ondoko aparkalekuak egokitzeari dagokionean, Udalak egingarritzat ikusten du, baina inguru horretan burutu behar diren beste proiektu batzuk gauzatzen diren garai berean egingo dela jakinarazten du.

## **Etxez etxeko laguntzaileak**

Aurtengo uztailaren 9tik irailearen 18<sup>a</sup> arte, Udaleko etxez-etxeko laguntzaileen oporraldian, hauen ordezkapenak egiteko, lan eske dauden pertsonen zerrenda bidaltzeko eskaera egin dio Udalak INEMi.

**E. Unamuno**



**HNOS. BENITO ANAIAK**

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)



**PASCUAL CHURRUGA, s.a.**

Hotzian eta beruan jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461

E-mail: [general@pascualchurruga.com](mailto:general@pascualchurruga.com)

Errekalde 21 20590 SORALUZE

# Ezoziko Ama Abesbatzaren X. urteurrena



Ezoziko Ama Abesbatza orain urte bi kontziertu baten ostean

*Herritar askorentzat ezezaguna izan arren, Ezoziko Ama Abesbatza Plazentziako elkarte kulturalik indartsuenetarikoa dela esan daiteke; bai batzen duen jende kopuruagatik, 39 koralistak osatzen dute gaur egun abesbatza, eta baita egiten duten lanagatik ere; astean ensaio bi. Batzuetan, hilabeteak ematen dituzte entsaiatu eta entsaiatu ezkutuko lan iluna eginez, baina ahalegin horren emaitza beti ikusi eta entzun ahal izaten da Abesbatzak kontziertuak eskeintzen dituen egunetan. Datorren astean, hilak 20, jaietako kontziertua eskeiniko dute Santa Maria La Real parrokian, iluntzeko 8etan. Abesbatzara jo dugu honen berri edukitzeko, zeintzuk ari diren bertan eta nola lan egiten duten jakiteko.*

#### Osaketa eta funtzionamendua

Gaur egun, korua 39 lagunek osatzen dute, adin eta mota guztietako jendea. Denen artean adinekoena **Luis Elorza** da, 84 urte ditu, eta gazteena **Nerea Mendia**, 17 urte. Zuzendaria **Silvia Hernández** elgoibartarra da, adituen esanetan Euskal Herriko zuzendari gazterik onenetarikoa. Ostegunero etortzen da abesbatza zuzentzera, 9 etatik 11 etara. Asteko egun hori da hain zuzen ere abesbatza bere osotasunean batzen den eguna, zuzendariak ahots desberdinak koordinatu eta bat egiteko erabiltzen

duena. Aurrez, astelehen eta astearteetan ahots desberdineko taldeak bakoitzak bere kontura entsaiatzen du. Astelehene-tan, 8etatik 9etara tenoreak elkartzen dira, eta **Begoña Txurrukak**, piano baten laguntzaz, zuzendariak agindutakoa erakusten die. Astelehene-tan ere, eta ordu berean, bajuek eta baritonoek entsaiatzen dute, **Domentx Uzin** musikari gaztea buru dutela. Sopranoak astelehe-nero 9etan elkartzen dira eta kontra-altuak ordu berean asteartero. Bi taldeei erakusten **Eider Varela** aritzen da. Aipatu beharra dago, Eider zuzendari ikasten ari dela eta dagoeneko meza batzuk zuzendu dituela. Jaietako kontzierturako ere, errepertorioko abesti bat zuzentzeko ardura hartu du.

#### Queen taldearen Bohemian Rhapsody abestia mimosz ikasten ari dira, gazte jentea erakartzeko asmoz

#### Disziplina eta lagun giroa

Biak dira ezinbestekoak abesbatzako funtzionamendua egokia izan dadin. Abesbatzako kideek adierazi digute koralisten arteko giroa ezin hobea dela, primeran konpontzen direla, eta horretarako lagungarri direla tarteka egiten dituzten kantu afariak. Disziplina ere beharrezkoa da Abesbatzak koordinazio

ona izan eta bere maila hobetu dezan. Izan ere, nahikoa da jarraian bi entseiu galtzea, hurrengo entseiu abesti ezezagun bat harrapatu ezinda ibiltzeko. Horregatik komenigarria da ahalik eta entseiu gehienetara joatea. Baina noski, hori ez da beti posible izaten; ikasketak direla, lana dela edo beste zeregin batzuk direla, jendea ezin izaten da eta entseiu guztietara joan.

#### Gorlizen 1500 lagunengoa aurrean

Datorren Uztailaren 24an Abesbatzako kideak Gorlizera joango dira **VIII. Habanera eta Euskal Polifonia Jaialdian** parte hartzera. Gorlizko Lirain abesbatzak, 10. urteurrenean, Castroko, Derioko eta Plazentziako koralak gonbidatu ditu ospakizunetara. Jaialdi ospetsua da berez, eta ospetsuagoa aurten Gorlizko abesbatzak 10 urte batetzen dituela eta. Antolatzaileek 1500 entzule baino gehiago espero dituzte.

#### 10. urteurreneko ospakizunak

Aurten Ezoziko Ama Abesbatza sortu zenetik 10 urtebete arren, datorren urtean ospatzea erabaki dute Abesbatzako kideek. Diru eskasiak eta denbora faltak ospakizunen atzeratzea ekarri du. Hala ere, esan digute ari direla zerbait prestatzen. Beste ekintza batzuen artean, **Queen** taldearen **Bohemian Rhapsody** abestia mimosz ikasten ari direla esan digute, abesbatzaren irudi serioa aldatu eta gazte jentea erakartzeko asmoz.



## Abesbatzako "Hiru Tenoreak"

Alberto Garitano, Manolo Etxabe eta Abel Olaizola ahots ederreko hiru tenore beterano dira. Beraingana jo dugu abesbatzaren inguruko galdera batzuk egiteko.

**- Zer daka ona Ezoziko Ama Abesbatzak?**

- **A.O.:** Nik pentsatzen juat kalidadia hobetu egin dogula.

- **M.E.:** Zuzendarixa jakau ona; argixa eta gogorra, bihar dan modukua. Di-da baten jartzen gaitu kantuan, baita dantzan be batzuetan.

- **A.G.:** Guri erakusten dabizenak be nahikua meritu eta pazientzia jakek.

**- Zer daka faltan edo hobetu biharre- kua?**

- **M.E.:** Faltan gazterixia. Egixa dok bastante gazte daguala inguruko korue- kin konparauta, baiña gero eta gazte git- xiago sartzen dok.

- **A.O.:** Bai. Gazterixia falta jakuk, baiña baita egindako bozak be. Baina disziplinia be falta dok. Bajuak zenbat barriketa egitten daben! Formalenak gu gaittuk, tenoriak.



- **A.G.:** Hori egixa dok, bajuak ez dittuk isiltzen. Falta jakun beste gauza bat lokala da. Sakristixia bota zebenetik Batzokixan entsaiatzen juagu, P.N.V.ak lagatako lokal baten, baiña lokal propiua bihar juagu. Oin dala gutxi udalet- xian agindu joskuek urte eta erdi barru edo eukiko dogula lokal bat.

**- Zer egin bihar dau koruan sartzia nahi dabenak?**

- **M.E.:** Etorri. Pozik hartuko juagu.

- **A.O.:** Koruko edozeinekin egon, ze egunetan entsaiatzen dogun galdetu, eta

horretako egun baten etorri. Zuzendarixak segiduan klasifikau- ko jok bozan arabera.

- **A.G.:** Telefonoz be deittu leike. Oin juntan telefonua erosi juagu kontaktuatarako. Zenbakixa 659444784 dok.

**-Solfeua biharrezkua da?**

- **M.E.:** Biharrezkua ez dok, baiña lagundu egitten jok.

- **A.O.:** Ona dok jakitzia, baina jente asko dao jakin barik ondo arreglatzen dana.

- **A.G.:** Ni adibidez. 30 urtian nabik solfeorik jakitzeke.

**- Zela animauko zendukie jentia koru- ra etortzeko?**

- **A.G.:** Aukeria euki eta kantuan egittia gustatzen jakona etorri daila bildur barik.

- **M.E.:** Bai, horixe. Afarixak be izaten dittuk batzuetan eta oso ondo pasatzen dogula.

- **A.O.:** Nik esango neuke sakrifikaua dala, konstantzia euki bihar dala, baiña oso relajantia be badala. Aktuaziño bat egin eta gero eukitzen dan satisfaziñua eta poza ez daok ordaintzerikan.

## Koralak Plazentzian; etenik bareko presentzia

Plazentzian jatorrizko abesbat- za **parrokiako koral** izan da. Bertatik sortu dira gainontzeko abesbatza eta kantari taldeak. Apaizak izan dira, batez ere, abesbatza hauen irakaslerik eta bultzatzailek finenak. Aipagarriak **Don Aniceto eta Don Juan Zugasti** anaiak, gerratian Donostiatik etorritako apaiz bi. Baita ere **Don Asensio**, hain- beste urtean organista eta mutikuen ira- kasle izandakoa. Emakumeek, sasoi hartan, ezin izaten zuten parrokiako ko- ralean abestu. Beraien au- kera orain 25 bat urte iritsi zen, parrokiako koraleko kantariak **Ezoziko Ama** koral mistoa sortu zutene- an. Ez zen behar bezala asentatu, eta gutxi iraun zuen. Beranduago **"Coro Soraluze"** sortu zen, Ezo- ziko Ama berriztuz, eta 1992. urtean berriz hartu zuen koruak jatorrizko izena. Urte hauetan zuzen- dari lanetan aritu direnen artean, **Miguel Olaizola, Bizente Olaizola, Nagore**

**Sanz** eta gaur eguneko **Silvia Hernán- dez** daude.

Kantuan egiteko afizioa haundia izan da Plazentzian, eta ospe ona izan dute bertako koru eta kantari talde des- berdinek. **"Ochote Allegro"**, txapelke- tetan garai hartako otxote "diboen" au- rretik geratu zen. **"Las Blubell"** 60.ha- markadan hainbat sari irabazitako neska gaztien taldea. **"Los Mansos"**, Ines Mari, Badiola eta Urizarrek osatzen zu- ten. Aipagarria baita ere **"Trio Nubay"**

hirukotea. **Montserrat Caballé "Petro- leruekin" txundituta.** Anekdotia hau Jose Angel Basaurik eta Gonzalo Gal- lastegik kontatu digute. Askorentzat, kantuan onduen egiten duen herriko kuadrila Petroleruena da. Gazte zirene- an, urtero joaten omen ziren Donostiara egun-pasa. Txikiteuan eta kantuan egi- ten zuten. Euren urrezko aroa zen, eta arrakasta itzela izaten zuten. Atzerrita- rrak euren ondorian izaten zituzten, eta tabernetan txikitua duan izaten zuten.

Behin, konturatu ziren atze- rritarren artean emakume ezagun bat zebilela: Mont- serrat Caballé. Urte batzuk beranduago, soprano cata- lunyarrak horrelako zerbait esan zuen elkarrizketa bate- an: "Gogoan dut nola ibili nintzen behin Donostian gazte kuadrila baten ondo- rian tabernarik taberna. Pro- bintziakoak ziren, eta ez da- kizu zelako ondo kantatzen zuten. Goiz gutzia eman nuen euren ondorian, ume bat bezala"



1946. urtean Parrokiako korua Don Jose Maria Galarragaren meza berriaren ostean ( Jose Berruetak lagatako argazkia )

**Pelota**

**Asteburu honetan pelota txapelketako final laurdenak**



Asier eta Iñakiren Omenezko Pelota Txapelketa final laurdenetan sartuta dago dagoeneko. Maiatzean, ekainean eta uztailera lehen astean jokatu dira ligaskan sartuta zeuden 32 bikoteen arteko partidua eta datorren ostiralean eta domekan jokatu dira final laurdenetara pasatu diren 8 bikoteen artekoak:

Hurrengo asteburuan final aurrekoak jokatu dira eta finala jaietako lehenengo egunean jokatu da, uztailaren 24an arratsaldeko 20:00etan San Andresko frontoian. Finalaren ostean txapelketa parte hartu duten afaria egingo dute Allegro elkarteak.

<b>Sauilkatu diren bikoteak:</b>
<b>Uztailaren 12an, ostiralean</b> 19:00etan: O. "Txipi"-A. Calles / G. Varela-G. Bollar
19:45etan: K. Heriz-H. Sudupe / A. Oñate-A. Fernandez
20:30etan: U. "Mendotz"- E. Oregi / J. Gallastegi-J. Heriz
<b>Uztailaren 14an, domekan</b> 12:30etan: I. Arluziaga - Z. "Orbe" / M. Rascon - J. Larrañaga

**Futbola**

**Soraluzeko neskek gailurrean**



Ekainean jokatu zuten Bergaran, 7dun Futboleko Eskola Kirola lehiaketa Soraluzeko hiru futbol taldek.

L. H.ko talde biek, 1.engo eta 2. Postuak lortu zituzten. Bi talde plaentziarrak elkarren kontra jokatu zuten eta



Alana Berraondo pitxitxiaren taldeak, 6eta 2 irabazi zuen. D.B.H.ko taldeak Maria Lagundia Bergaran taldearen kontra galdu zuen 1 eta 0 eko emaitzaz eta 4. Postua eskuratu zuen. Zorionak!

**X. Catalan**

**Eskia**

**Unamuno omendua**



Joan den uztailaren 4an Udalak Ederne Unamuno plaentziar kirolaria omendu zuen duela 5 hilabete La Molinan jokatu zen Espainiako Eski Alpinoko Txapelketan, jaitsieran eta pista erraldoian lortutako lehen postuengatik. Omenaldia Udaletxeko arkupeetan izan zen eta Edernek garaikurra eta lore sorta eder bat jaso zituen alkate eta zinegotzien eskutik.

**Atletismoa**

**Azkona garaile hirukoitzean**

Ekanaren azkenengo asteburuan Espainiako Junior Txapelketa jokatu ziren Majadaondan Madrilan.

Arratek Azkonak jauzi hirukoitzean lehenengo postua lortu zuan 13 metro eta 4 zentimetroko jauziarekin.

Alturako jauzian oster, 2. gelditu zen, m1 eta 73 zmk jauziarekin.

Arratek Junior Mundilerako gutxienekoa lortu zuen ia ia eta bere markatik oso behera egin zuen salto eta.

<b>PELOTA MOTZEAN</b>
Iñaki Jauregik Erreterriako txapelketako finala jokatu du uztailaren 22an Roteta zarautzarrarekin batera.. Onar Muguruza Itziarren ospatzen ari den laurdiko txapelketa final laurdenetara heldu da. Erlei Txurruka Azagirre bergararrarekin batera Antiguoko txapelketa garrantzitsua jokatu ari da. Lehen partidua uztailaren 3an jokatu zuen eta ez zuten garaipena lortzerik izan. Antton Alberdi Azagirrerekin batera Getariako txapelketa parte hartzen ari da eta jokatu du lehen partiduan garaipena lortu du 22 eta 18.


# Juan Carlos Larreategi

## “Zenbat mutikok ikasi ete juan igerixan Olan...”

*Juan Karlos Larreategi 68 urte ditu eta bere jaiotetxea den, Ola auzoko izen bereko baserrian bizi da bere emaztearekin batera. Ola baserria, “Olako Osiñ” ezagunaren ondoan dago, pare parean.*

*Juan Karlosek ondo gogoan ditu Deba ibaiko urak garbi zetozenean, arrantzan edo baiñuan, ibaiaren inguruan igerotzen zituzten une ederrak.*

*Orain, Errekalde eta Ola aldeko dituen Albesako zubia egiteko lanek ingurua eraldatu dutenean, garai hartako kontuak berritu nahi izan ditugu Juan Karlosekin, Olako Osiñaren historia ezagutu eta orduan ibaiak plantxiarrendako zuen garrantzia hobeto ulertzeko.*



Juan Karlos Larreategi Ola baserriko atariko kiwiplean.

### Lenao jente asko etortzen zan Olako Osiñera?

Jentia? Askok, kantidadia. Debara baiño gehixao etortzen zuan jentia hona. Eibartik mutiko kuadrilak etortzen zituazzen bizikletan. Bañau ta sagarrak jan ta... Gure etxe paria dana bete bete einda egoten zuan udan. Baina mutikuak bakarrik bainatzen zittuazzen. Neskak begiratu eitten juen bakarrik.

### “Eibartik be etortzen zuan jentia Plaentxiara loñak jatera; Meltxorrenera ta Anjelenera ta...”

Zenbat mutikok ikasi ete juen Olan igerixan... Mutiko txikixak etortzen zittuazzen aittakin ta hemen ikasten juen igerixan. Gizonak be sartzen zittuazzen praka ta guzti, bero haundixakin ta... Jaixetan be gabaz jentia etortzen zuan bainatzera ta juergara.

Hauxe zuan igerixan ikasteko inguruetako tokirik onena. Lehenengo presian onduan, gerriraiñoko uretan suabe suabe, gero aurreratsua bigarren koskia leporaino ta hirugarrena “tapakua”, jo ta tapau. Hantxe hartzen zuan alternatibia. Ibai baztarreko txopo okerretatik salto ein ta...

### Tabernia be bazeuan ezta?

Bai, bai. Olako tabernia. Oindala 50 urte inguru. Taberna aurrian 3-4 intxaur arbola ta bolatokixa juaizen. Hemen

bola premixua zanian bete bete egoten zuan dana, tabernariak saltze juan zahagi bat arda (100litro) ta gustora. Bestela be boletan ixa egunero eitten zuan, lanetik etxeruzkuan ta... Harri jasotzen be bai, burdinezko ta harrizko zilindruekin.

### “Zurittasunak loñia erakartzen juan ta loñia sartzen bazan aingiria be seguru sartuko zuan”

#### Arrain janik egitten zan?

Bai. Loiñadak eitte jittuen hor. Intxaurpian ipini mahaixak eta loñak projidu olixotan da, arda pixkatekin edo... hemen askotan eitten zuan loñadia. Eibartik be etortzen zuan jentia Plaentxiara loñak jatera; Meltxorrenera ta Anjelenera ta...

Jente asko, kuadrilak... Tabernariak eurak harrapatzen jittuen arrainak eta gero anunziatzen juen loñadia edo, eskailu jana zeuala ta aurrera.

Eibarren ez zuan ixa bape arrainik egoten. Orduan Eibartarrak esaten juen “Plaentxiarrak ibaixa esaten jetssek errekiari”, harena bai erreki zuan baina gurria ibaixa! Hori bai, Plaentxian moduko ibaixa egon balitzok Eibarren ez juen tapauko eh!

### Orduan arrain asko izaten zan ibaixan?

Izango ez zuan ba! Izugarri. Loinak eta, eskailuak eta, aingirak, kangrejuak, sarbua... danetik jauan hemen. Behin Justino Artolazabalek izokin bat be harraupau juan, hortik etara kontuak.

Txingiak, sare batekin, alde batekin makilekin edo sustau ta beste batzuk bestekaldetik txingiakin pasau ta, katiata gelditzen zittuazzen.

Butroiak be botatzen zittuazzen (kaxolak), barruan artiriña edo arrautza oskolak botata. Zurittasunak loñia erakartzen juan ta loñia sartzen bazan aingiria be seguru sartuko zuan. Handik bi egunera aingirak, loñak janda...

Kañiakin bebai. Baina orduan peskarako kañia zeukana, kapitan generala zuan!

Baita, sarbuak eta eskailuak ipini anzueluan da aingiratarako be, bota korrelak gabian da hurrengo egunian jaso. Etxetik urrian bazan ondo, urrintxuak bazan igual beste batek eruan.

Ur haundixak ziranian be esaterako, arrainak baztarrera jote juen, eta orduan saria pasau eta bete bete etartzen zuan. Plastikozko boteila ta eskuakin bebai.

Baina Guardia Zibila ibiltzen zuan zaintzen ta ez juan lagatzen peskan eitten. Orduan 3-4 arrain harrapatziarren multak eta gero benenuakin danak akabau arren ezebez. Oindala 40 bat urte juan zuan hau pikutara.

E. Unamuno

## San Andres jaietan



### San Andres hegan

Asteburu honetan, uztailearen 13,14 eta 15ean izango dira San Andres auzoko 2.002.urteko jaiak. Aurten ere egitarau dotorea prestatu dute San Andrestartarak eta eguraldiak laguntzen badu jende asko batzeko itzaropena dutela jakinarazi digute.

### Zapatuan “Rocka” eta “Streaptisa”

Zapatuan Egan taldearen eskutik musika izango da nagusi San Andresen. Euskarazko musika, musika alai gaugiro goxora gerturatzen direnek dantzan gozatu dezaten. Eta honen ostean, joan zen urtean moduan “Streaptise Integrata Show”a begien gozagarri.

### Domekan meza, bertsolariak, pelota

Domekan ere izango zer ikusia San Andresen; 11:00etako Mezarekin hasiko da eguna, ondoren “Mendotz eta Bixkai ” trikitilariak, Elustondo eta Agirreazaldegia bertsolariak, Arrieta-Aranzetak Muguruza-Jauregiren kontra jokatu dute pelotan 13:30ak aldera Urrats dantza taldearen saioa izango da eta 14:30etan bazkaria. Arratsaldean 17:00etan Gorritiren animaliak eta 18:00etan Bola Txapelketa.

### Astelehenean “auzokuendako jai-eguna”

Astelehena auzokuendako jai-eguna izaten da. Eguerdiko mezak, haurrentako jolasak eta Lizaso eta Egañaren bertsoek alaituko dute bazkalaurrea eta bazkalostean bertsoez gain, Gardokiren “soinu majikua”rekin gauerdirarteko erromeriaz gozatu dute.

## Pablo Carbonell izango da jaietan

2.002. Urteko Santa Ana jaietako Udalaren egitaraua osatua dago dagoeneko. Aurtengo egitarauko ekitaldirik azpimarragarrienak dudarik gabe, musikaren ingurukoak izango dira; uztailearen 24an Luartz talde euskaldunak joko du, 25ean Real Santa Cecilia Mariachi taldeak, 26an “Las Chicas del Sol” talde kubatarrak eta 27an Pablo Carbonell musikari eta telebistako erreportari ezagunaren kontzertua izango da entzungai.

Udalarekin elkarlanean Pil-pilean Kultura Elkarteak antolatuko dituen; karta txapelketa, poni lasterketa, gaueko kantzontzillo eta kulero karrera, triki bertso sokasalto poteoa eta herri afaria ere ez dira ahazteko moduko ekimenak.

Askatasunak eta Gazteteak ere, jaietarako euren egitarauak prestatu dituzte. Askatasunak txupinazo alternatiboa eta aldarrikapen ekimenak antolatu ditu, tartean herri bazkaria ere bai. Gazteteak 3 bat kontzertu antolatuko ditu.

## Txupinazoa 3 plaentxiarrek

Mari Tere Aristi, Jose Gil eta Eneko Beretxinaga izango dira 2.002. urteko Santa Ana Jaietako txupinazoa botatzeko ohorea izango duten 3 Soraluzetarrak. Jendeak Pil-pileanek eta Udalak antolatutako galdeketa proposatutako izen zerrendatikk 3 generazioko taldetxo bat osatu da; “plaentxiako umoriari eusten dotsen 3 generaziño dira” Pil-pileanekoen ustetan. Mari Tere eta Jose kultura arloan lan asko egin duten pertsonak dira eta Eneko “bide berdian datorrena eta gainera bertsoarixa”. Zorionak hiruroi!

Telefonia 75 24 09

# ARRANO

## tabernia

“Giro euskalduna eta sanua”

ETORRI ETA GOZATU

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

# etxera

# Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza  
Jabe Elkarteak  
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.  
20590 Soraluze  
GIPUZKOA

Tlfonua: 943 75 17 82

# Itziar Aldazabal

*“Kapote ta guzti belauniko zezentxo baten aurrian”*

Azken egunotan ahoz-ahoz bolo bolo dabilen kontu bat eta lagun bat ekarri nahi izan dittugu gurera. Izen be benetan bitxixa da Itziarrek berak jakitera emongo doskun ondorengo pasarte hau...

## Zaletasunak?

Trankilidadia gustatzen jata, trankil trankil egotia, txakurrakin pasian ibiltzia...

**Koloria, animalixia, zenbakixa, lekua, abestixa...**

Urdina, txakurra, 9xa, mendi ingurua, trikitrixa (edozein abesti).

**Bapo geratzeko modoko bazkarixa?** Langostinuak, urdaiazpikua, esparra-guak, txuleta edarra eta gainian manta-kaua uda baldin bada eta bestela platanua.

## Egun borobila?

Edozein zapatu da borobila neretako, asteko egunik onena da, goizian trankil lo egin eta gero ez dakit ba, eualdi ona baldin badao zelaixan etzan ta euzkixa hartu...

## Eguneko momenturik onena?

Bazkalostia.

## Ezin dozu aguantau?

Zaratia, eskandalua.

## Ze eruangoz zinu ke irla bakarti batera

Musikia eta animalixaren bat, eta libre egonez gero lagun bat.

## Hiru desio...

Osasuna eukitzia, egunerako dirua eta maillasuna.

## Jaixetan ze gustatzen jatzu gehixen?

Gabeko musika taldia.

## Ezingo zinake bizi?

Osasunik barik.

## Kapote eta guzti ikusi zaittugu egun-rikariko erretrato baten. Zer da kontu hori?

Ba San Juanetan Arrasaten goizeko 9,00etan zezentxuak edo txahaltxuak zeren ta han nenguan ni hareri begira. Hasieran mutilak zebizen kapote ta guzti harek toriatzen, baina halako


## Bertso Begiz

*Itziar honek gauza bat esan ta beste bat egin gero, “lasaitasuna gustatzen jata” trankil esan bebai gero. Zezen haundi galantak! kapote ta ezpatak! Errez dominatzen dittu, aurten jaixetan toriatzeko zezen haundi bi balittu.*

*Etxebarri*

*(Doinua:*

*Iparragirre abila dela)*



**Itziar Aldazabal**

baten arduradunak zera esan zeban mikrofonotik...bueno eta oin nesken txandia. Inor animatzen ez zala-eta, neska batzuek etaratzen saiatu zan baserritarrak, baina danak ezetz eta ezetz.! Eta orduan zera esan notsan nere buruari ... hauxe da nere aukeria eta bi aldiz pentzau barik, da!!! jaitsi nitzan plazara.

## Zuk orduan bazen kixen zetara ziñoiazan?

Bai kapotia emon zozten eta holaxe ibili nitzan pasiak emoten. Pase batzuk emon da gero kapotia lagatzera juan nitzan, baina zera esan zozten: -Itxoin itxoin oin belauniko!!!

Baita jarri be!!! belauniko be pasiak emon nittuan.

## Bildurra sentiduko zinu ba?

Ez bildurrik ez! ondolik pasatzen zanian estuasuna, hori bai!

## Zer bihar da zezenan aurrera urtetzeko?

Gustau ein bihar jatzu, arriskau ein bihar zara, baloria, ta suertia be bai ,dana ondo bihar jatzu bestela...

## Normalian zezenian ibiltzeko ohitturia dakazu?

Bai normalian antxitxiketean eitten dot, ez dittut erromarian beste aldetik ikusten.

## Aurrera begira berriro be holako aukerarik izan ezkerore toreatuko ziño-ke?

Dudarik barik!! Nere neurriko zezentxua izango balitz bai! Dudarik barik!!

**Gururu**

## Lonbide taberna

*Pintxoak  
Ardoak, kafeak eta likoreak*

**Errabal kalea, 9  
Tfnoa 943 75 14 07**



## Lakuesta


**Optika**



**Ikusmen arazoen frogak eta argibideak**

**Argazkiak errebelatzen ditugu**

**Santa Ana, 22 C- behea  
20590 Soraluze  
Tfnoa 943 75 30 59**



## Argazki zaharra



## Ur gaineko bizikletia 1.930ian

Argazkian; Nicomedes Bollain, 1.930ian asmau zeban uretako bizikletiarekin ibaixan egindako probetako baten.

Inguruan, asmakizun berriak erakarrirta, dozenerdi mutiko, uretan murgilduta.

Noizbait, izango ete da berriz, ibaixan baiñua hartzeko aukerarik...

*Jose Berruetak lagatako argazkia.*

## Eukararen ajieri, sendabelarra



Jateko goguk dauzkat  
GAIZKI



Jateko gogua daukat  
ONDO

Gaztelaniaz plurala erabiltzen bada be euskeraz gogua esan bihar da eta ez goguk....

## Lehiaketa

### Irri ta Barre

Egilea: Joxeantonio Ormazabal

Liburu hau xumea, arina, laburra da, marrazkiz betea, irakurtzen ikasten ari diren edo ikasi berri duten haurrentzat egina. Marrazkietan eta testuan, izenburuak dioen bezala, umorea da nagusi. Niri gustatuko litzaidake haur batek gauean, lo hartu aurretik...



**Galdera: Zerk eragin dizu barrea gaur?**

**"Irri ta Barre"-en BI ALE DITTUZU ZAIN**


**Aurreko lehiaketako irabazlea:**

**Enkarna Arrizabalaga**

Goizeko 6:30-etatik  
aurrera zabalik!!  
Gosarixak eta  
pintxo  
goxo goxuak !!



Errabal kalea, 15 Tfnoa 943 75 18 34



## Kiru Muntaiak

Blas Elizburu Kortabarria

Sukalde, enpotratu

eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Errekaldia, 30

Tfnoa 943 75 13 12

Eskuko tfnoa 670 05 18 20


**AV** aras S.A.L.

DIN arauak jarraituz eta  
zehaztasun handiz egindako torniluak

Industrialdea 20-21  
50 Posta Kutxatila

Tfnoa 943 75 17 36 - 75 18 03  
Faxa 943 75 22 95  
20590 Soraluze

## Mendata taberna



**Berezitasunak:**  
*Txipiroiak, Barazki  
Menestra, Gixauak...*  
Asteburuan plater  
konbinatuak  
*Enkarguak etxerako*  
*( bazkariak eta afariak )*  
Kalebarren, 5  
Tfnoa 943 75 13 87



**IÑAKI  
IÑARRA**

**HARATEGI ETA  
URDATEGIA**

Kalebarren 29  
Tfnoa 943 75 12 49  
Soraluze



**MAPFRE  
MAPFRE SORALUZE**




**JUAN LUIS IBARZABAL ARRIETA**

**JULIA IBARZABAL ARRIETA**

Gabolats, 5 b  
Tel.: 943 75 16 58 - 943 75 30 12  
Eskuko telfnoa: 649 49 79 59 Faxa: 943 75 16 10  
20.590 SORALUZE

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



**kutxa**

zuri esker  
gracias a ti

**FER. S.A.**  
**Industriak**

*Eskulanetarako tresnak*

Industrialdea, 17 - 20590 Soraluze  
Tlfonoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es




**ARRATE IRRATIA**

*asteartero  
12:40an*

*Soraluzeko berriak  
zure etxean.*

*Pil-pileanen eskutik.*



**Limpiezas  
industriales**

**Limpiezas**

**Trejo, S.L.**

Rekalde, 30 behe  
Tel.: 943 75 25 57  
Faxa: 943 75 25 56  
20.590 SORALUZE

# 2.002Ko Danborrada badator



**Kaixo!**

2.002. Urteko danborrada antolatzen hasitta gare. Batez be gremixuetan izena emotia komeniko litzake. Donostiako danborradian antzeko zeozer egittia nahi badogu, etorri ! Primeran pasauko dozu, lagunarte edarrian eguneko estres dana kentzeko aukera edarra emoten dabe entsaiuak. Animo!

***Danborradako entsaio egunak:***

***-Noiz:Uztailaren 16, 18 eta 23an.***

***-Ze ordutan: Arratsaldeko 19:30etan.***

***-Nun: Goiko Eskoletan.***

***Danborrada egunean afarixa izango da.***

***Izena Emoteko: Iratxo Goxodendan.***

**SORALUZKO DANBORRADAKO ANTOLATZAILE TALDEA**



**Peugeot 307. Ez da zenbaki bat bakarrik**

**2002 urteko autoa da Europan**



Ze puntutaraino izan dezakezu konfidantza auto batekin? Punturik goreneneraino. Batu eta irabazi egin dugu. 6 Airbag (aurreko inteligente 2, alboko bi eta kortina moduko sabaiko bi, aurreko eta atzeko bidaiariendako) eta ABSez gainera, zure eskura jartzen ditugu segurtasuneko elementurik aurreratuenak:

EVA (larritasunezko frenatueendako laguntza), REF (frenatuaren banaketa elektronikoa), ECS (garondoko lesioen aurkako babes sistema), oiñ-jartzeko aktiboa,

Norabide habe atzeragarria eta ESP (orekaren kontrol dinamikoa). Xehetasun eta kontrol osoa.

**ETORMOBIL**

Otaola etorbidea 22

Tel.: 943 20 09 66

EIBAR

**307**   
**PEUGEOT**